

**Giza eskubideak,
beste globalizazio baten
aldeko borrokan**

Aurkibidea



03

Sarrera: Giza eskubideak, beste globalizazio baten aldeko borrokan



04

Emakumeen Mundu Martxa



11

Vía Campesina



Giza Eskubideak, beste globalizazio baten aldeko borrokan

Gero eta hobeto ulertzen da ekonomiaz hitz egiten denean eskubideez ere hitz egiten dela eta, askotan, logika ekonomiko suntsitzaileen garapenaren ondorioz urratzen direla giza eskubideak. Era berean, egia ere bada nazioarteko eragile boteretsuek eta euren sareek bi postulatutan oinarritutako globalizazio-bertsioaz sartu ahal izan direla: lehenengoa: globalizazioaren ondorioz, arazoak baino aurrerakuntza gehiago sortu dira, munduk hobera egin du, hau da, prozesu horren kostuak edo ondorio txarrak gutxi dira lortutako onura handien aldean. Bigarrena: esandakoaren arabera, merkatuaren hedapenean oinarritutako globalizazioa baino ez dago ezartzerik, zentzu guztietan. Gainera, jarduteko askatasuna izan behar du, oztopo nazional zaharrak edo kontzeptu zaharkituak hausteko, langileen edo nekazarien eskubideak eta gizarte-zerbitzuak oztopatzen dituztelako.

Estatuaren erantzukizunak ezabatzeko arrazionaltasuna edo pentsaera eta jardun neoliberala da nagusi, eta honako hauexek ezarri dira haien ordeztu: merkaturako sarbideak, pribatizatze prozesuak eta sorospenaren zein gizarte-estalduraren funtsezko murrizketa. Historian zehar arpilaketaren eta bazterketaren biktimak izan diren sektoreek oinarritik erantzun dute, eta arlo hauetako proposamenen bitartez: prestakuntza, kontzientziazioa, antolaketa eta mobilizazioa. Horretarako, borrokarako toki-adierazpideak sortzen dituzte, eta, aldi berean, nazioarteko sare eta itunak ehuntzen dituzte, sektore bereko gero eta talde gehiago eta beste sektore edo gai batzuk erakartzeko. Hartara, bat egiten dute, merkaturako globalizazioari eta planetako gaur egungo krisiaren ondorioz nabarmendu diren politika ezin txarragoei aurre egiteko.

Erresistentzien globalizazio-prozesuaren aldeko apustua egiten da honako hauexen aurka: ingurumenaren hondamendia, finantza-bilbea, gosea eta zapalkuntza sortzen dituen espekulazio mugagabea, lan zein gizarte arloko ezegonkortasuna, militarizazioa, kriminalizazioa, arpilatze gerrak, transnazionalen interesen alde eratutako mundua, indarkeria-ekintzen gorakada

berria, emakumeen baldintzen larritasuna, monolaborantzak eta nekro edo nekazaritza arloko negozioak. Bien bitartean, maila globaleko erresistentzia-prozesu horrek beste era bateko globalizazioaren alde egiten du. Hain zuzen ere, globalizazio kapitalistarekin bat ez datozenen edo globalizazio horretako biktimak direnen artean zubiak ezartzea da eta izango da bere helburu historia.

Emakumeen, gizonen eta euren erakundeen borroka aipatu eta nabarmendu egin behar dira, munduko esparruetara iritsi direlako, ibilbide globalizatzaile bortitzaren eta arpilaketan, esplotazioan eta metaketan oinarritutako sistemaren garapenari zilegitasunez aurre egiteko. Horren ondorioz, hain zuzen ere, planetak eta gizakiek gainbehera egin dute erabat. Vía Campesina, Emakumeen Munduko Ibilaldia eta antzeko nazioarteko sareak oso lagungarriak dira, giza eskubideak eratu egin behar direla ulertzeko orduan. Gainera, helburua ez da ezkutatzea izan behar, bidegabekeria edo asimetria horien ondorioz sortutako gatazkak erakustea eta konpontzea baizik. Hau da, giza eskubideak eta euren legatu historikoak geure gain hartzeko aukera dugu, subjektu eta mugimendu berriek funtsean bidegabea den sistemaren aurka garatutako borroken bidez, beste era bateko mundu bat eratzeko erronka egia bihurtu dadin.

Emakumeen mundu martxa

Emakumeak eskubide-titularrak dira desberdintasunean. XXI. mendean bagaude ere, baieztapen hori egia da. Giza eskubideak sortzean emakumeak utzi dituzte kanpoan, eta, genero-baldintzatzaileen ondorioz, ez dago eskubide horiek betearazterik.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik, zenbait aurrerapauso eman dira emakumeen eskubideen errespetuaren aldeko borrokan. Nazioarteko aurrerapauso horietako bat 1993ko Vienako Konferentzia da. Bertan, lehen aldiz, berariaz baieztatu zen emakumeen giza eskubideak giza eskubideen osagai zatiezina direla.

1995ean, aurreko konferentzien aldean, Beijingeko Konferentzia partaidetza handiko prozesua izan zen, eta bertako parte-hartzaileen %80 emakumeak izan ziren. Gainera, mugimendu feminista bera ere izugarri mobilizatu zen. Horren ondorioz, adostasun globala lortu zen emakumeen eskubideen eta genero-desberdintasunaren arazoan esparruan. Topaketa horretako programa-agirian azaltzen dira generoaren kontzeptua (lehen aldiz adostu zen nazioarteko politikan), jabeakontzaren estrategia eta "mainstreamingaren" estrategia (zeharkakotasuna). Horra hor emakumeen eskubideen aldeko borrokarako hiru tresna garrantzitsu. Eurei esker, baliabideak berbideratu ahal izan dira harrezkero.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean nola dauden zehaztuta kontuan hartuta, kritika feministaren ustetan giza eskubideak berriro zehaztu beharko lirake, emakumeak kanpoan geratu ez daitezten. Beraz, genero-ikuspegia kontuan hartzen duen giza eskubideen itun berria egitea proposatzen da. Emakumeen mugimenduak eskubideak zalantzan jarri eta berriro kontzeptualizatu behar direla adierazi du behin eta berriro, eta androgenikoak direla salatu du. Horrez gain, bere borrokari esker, beste eskubide batzuk jarri ahal izan dira agerian; esate baterako, eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak. Mugimenduak lortu egin du emakumeen eskubideak nazioarteko agendan sartzea. Emakumeen eskubideak urriak direnez, berme-sistema ezarri beharra

dago eurak defendatzeko. Ez-bereizkeriaren onespren formaletik (berdintasun formal moduan) benetako berdintasunerako eskubidera igaro behar gara.

Emakumeen Mundu Martxa:

Emakumeen Mundu Martxa (aurrerantzean, MMM) mundu zabaleko emakumeen arteko elkartasun-mugimendu handia da, eta "mundua aldatzea eta emakumeen bizitza aldatzea" da bere lelo nagusia. Ekintza feministen nazioarteko mugimendua da, oinarrizko erakundeak zein taldeak elkartzen ditu eta txirotasuna zein emakumeenganako indarkeria sortzen dituzten arrazoiei aurre egitea du helburu.

MMM munduko emakumeak elkartu nahi zituen proiektu bateratuaren inguruan. Oinarrizko erakundeetako emakumeek eratzten dute, eta ondotxo dakite zeinen garrantzitsuak diren tokian-tokian diharduten taldeak zentzu globalari begira. Emakumeak mugimenduko protagonistak dira, eta lidergoa erabat hartzen dute euren gain. MMMrentzat, aniztasuna indarra da; eta elkarrekiko errespetua, printzipioetako. Hiri zein landa munduko emakumeek osatzen dute MMM: nekazariak, sindikalistak, gazteak, zenbait etnia eta erlijiotako emakumeak... MMMren estrategiak sormenari ematen dio lehentasuna ekintzak abian jartzeko orduan. Bere ezaugarri bereizgarriena tokian tokiko mobilizazioak dira, bai eta nazioarteko ekintza sortzaileak ere. Ekintza globalak ez dira inposatzen, partaidetzan oinarritutako kontzertazio-prozesuan daude eratuta.

Gaur egun, funtsezko erronka gainditu du, unean uneko kanpainatik munduko mugimendu iraunkorrera igaro delako. Gaur egun, honako hauxe da MMMren egitura antolatua:

- Nazioarteko Lantaldea: Afrikako 2 emakume; Asiako 2; Ameriketako 2; Europako 2; mundu arabiarreko bat; eta ibilaldiko koordinatzailea.
- Idazkaritza (Sao Pauloko egoitzan).

- Lantalde nazionalak (70etik gora herrialdetan daude) eta eskualdeakoak: lantalde nazionalak autonomia dute, euren ekintzak, agenda eta lehentasunak zehazteko.
- Talde parte-hartzaile aktiboak.
- Jarraitzaileak.

Zailtasunak zailtasun, mugimenduaren indarra bere malgutasun, bizitasun eta sormenean dago oinarrituta, baina batez ere, elkarrizketarako gaitasunean eta jarrera bateratuen eraketan. Bere adierazpen adierazgarrienetakoa "Emakumeen gutuna gizakientzat" da, bai eta "Txirotasuna desagerrarazteko aldarrikapenak" laguntasun-agiria ere. Izan ere, 1998an onartu ziren, eta, ostean, 2001ean berrikusi ziren.

Lan-estrategiak:

MMMk nazioarteko topaketa egiten du bi urtean behin gutxienez. Seigarren nazioarteko topaketan, 2006an, lau ekintza-arlo zehaztu ziren:

- 1 Ondasun bateratua, elikaduraren subiranotasuna eta baliabideak zein biodibertsitatea eskuratzeko aukera.
- 2 Emakumeen lana.
- 3 Emakumeen aurkako indarkeria, emakumeen gorputzak, bizitza eta sexualitatea kontrolatzeko tresna.
- 4 Bakea eta desmilitarizazioa.

1. Ondasun bateratuak eta baliabideak eskuratzeko aukera:

Emakumeen Mundu Martxak arlo horretan duen jarreraren ardatz nagusia elikaduraren subiranotasunerako eskubidea da. Modu berezian, MMM "ondasun bateratuaren" pribatizazioaren aurka dago. Kontzeptu generiko horrek, hain zuzen ere, guztientzat onuragarriak diren ondasun bereziak eta partekatuak hartzen ditu kontuan. MMM honako honen aurka borrokatzen da: natura merkantilizatzeko korrontea, lurren pribatizazioa eta emakume nekazarien

bizimoduan dituen ondorioak. Horiek horrela, lurra, ura eta haziak eskuratzeko aukera defendatzen du.

MMM naturaren eta zerbitzu publikoen pribatizazioaren aurka borrokatzen da, eta enpresa multinazional handien jarduketa salatu du, euren ekintzen ondorio sozialei barik mozkinak ematen dietelako lehentasuna. Estatuaren zeregina defendatzen dute, oinarritzko zerbitzuetarako eskubideak bermatzeko; esate baterako, osasuna eta hezkuntza. Era berean, salatu egiten du lur-jabetza handiek ere erantzukizun handia dutela elikaduraren krisian, toki-nekazaritzaren kalterako dira-eta. Ibilaldiko emakumeek buru-belarri lan egiten dute, edateko ura eskuratzeko aukera unibertsala izan dadin eta iturri alternatiboetatik datorren energia kontsumitu dadin (esate baterako, biomasa, eguzki-energia eta eolikoa). Horrez gain, proposamen zehatzak garatu dituzte; esate baterako, "oinarritzko energia-otzararen" sorrera.

MMMk elikadura-eredua aldatzeko ekintzen alde egiten du, eta landa zein hiri inguruneke emakumeen arteko harremanak sustatzen ditu, gaur egun jateko osasungarriaren orde zateko zaborra bultzatzeko dagoen korronteari amaiera eman ahal izateko. Merkatuko esaneko neoliberalismo itsuak igorritako emakume-idealen ondorioz, emakumeen eta elikagaien arteko harremana suntsigarria da erabat, eta zenbait gaixotasun hedatzen ditu; esate baterako, anorexia edo bulimia.

2. Emakumeen lana:

Emakumeen "bigarren belaunaldiko eskubideak" (ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) ez dituzte gaur egungo munduan ia-ia inoiz errespetatzen. Ibilaldiak emakumeen lan-eskubideen errespetu eta zabalkunde eraginkorraren alde lan egiten du: behar den moduan ordaindutako lanerako aukera eta aberastasunen berdintasunezko birbanaketa, besteak beste.

Tradizioaren arabera, emakumeen lana esparru pribatura, familia-girora mugatu da, eta familiaren zainketaekin egon da lotuta. Bien bitartean, gizonak soldata bila joaten ziren etxetik kanpo. Gizonen lana baino ez zen soldatapekoa eta, horren ondorioz, balioetsia. Orain dela zenbait urtetatik, gero eta emakume gehiago laneratzen diren arren, oraindik balioespen-eskema hori indarrean dago pentsaeretan. Neoliberalismoaren goraldian, gizarte-onuretarako gastu

publikoa murriztu egin denez (osasuna, hezkuntza), emakumeek egindako etxe eta auzo lana areagotu egin da. MMMk eskema hori hautsi nahi du. Horretarako, ugalketa-lanaren balioespena aldarrikatzen du, eta lan hori gizon zein emakumeen artean berdintasunez banatu behar dela adierazten du. MMMk "ekonomia feministaren" printzipioa (emakumeek ekonomian duten ekarpena agerian jartzea) defendatzen du, eta, horrez gain, gaur egungo ordena ekonomikoa kolokan jartzen duten beste printzipio batzuk ere sustatzen ditu; esate baterako, ekonomia solidarioa eta elikaduraren subiranotasuna.

MMMk ere salatu egiten du enpresa transnazionalak emakumeen lanaren esplotazioan zuten zeresana. MMMk kritikatu egiten du neoliberalismoak emakumeen finantza-autonomian duen eragina. Hori dela-eta, alternatiba ekonomiko feminista solidarioei buruzko lan-taldea sortu du, garapen ekonomikoa emakumeentzako esplotaziorik gabeko bizitza duinarekin lotzen duten bide berriak aurkitzeko.

Emakumeen lan-munduko esplotazioa antolakuntza ekonomiko globalizatuaren oinarrian dago. Hamaika emakumek landa-inguruneko txirotasunetik alde egin behar dute, eta makilategitean eta esportaziorako nekazaritzako laborantzetan baino ez dute lana aurkitzen, oso lan-baldintza ezegonkor gogor-gogorretan. Babesik ezaren aurka borrokatzeko, MMMk aldarrikatu egiten du gizarte-segurantza unibertsala egon behar dela eta eskubide sozialdun enpleguak sendotu behar direla.

Esplotatutako emakumeen artean, etxeko emakume langileekin batera, oso talde zaurgarria eratzen dute emakume langile etorkinek, are gehiago gaur egungo testuinguruan, "migrazioak emakumetu" egin direlako. MMMk askatasunez mugitzeko eskubidea defendatzen du, eta, beretzat, migrazioak iparraldeko zein hegoaldeko gizarteetan migrazioaileek dituzten elkarrekiko interesetan daude oinarrituta.

Emakumeen aurkako indarkeria:

Emakumeen aurkako indarkeria garai askotan munduko leku ugaitan egondako fenomeno da. MMMren ustez, indarkeria hori sistema patriarkalaren tresna da, gizonen nagusitasunari eusteko. Sistema kapitalista patriarkalak emakumeen gorputza kontrolatzeko, eskuratzeko eta esplotatzeko premia du. MMMk

emakumeen aurkako indarkeria salatzen du, emakumeen gorputzak, bizitza eta sexualitatea kontrolatzeko tresna delako. Zentzu horretan, oso arazo handia da emakumeen gorputzak merkaturatzea.

MMMk emakumeen aurkako indarkeria horren adierazpideak salatzen ditu; esate baterako, mutilazio genitalak, lebirato/sororatoaren tradizioa, zenbait lekutan emakume ekintzaileek jasaten duten indarkeria, espetxeratutako emakumeekin erabilitako indarkeria edo lesbianenganako bereizkeria. Aldi berean, MMMk emakumeek indarkeria sexistari aurre egiteko garatutako erresistentzia jarri du nahi agerian.

Emakumeen aurkako indarkeria ez da gai erraza mugimenduan bertan. "Indarkeria" oso termino anitza eta zabala denez, indarkeria fisiko zuzenetik haratago joan daiteke. Nolanahi ere, emakumeak ados daude emakumeen sexu eta ugalketa osasuna defendatu beharra dagoela adieraztean. "Ugalketa-justiziaren" kontzeptua garatu dute, hau da, abortu segurua eskuratzeko aukera eta ugalketa zein osasun arloko eskubideak eskatzeko moduko baldintzen sorrera. Emakumeek defendatu egiten dute gazteei erabaki aske pribatu eta pertsonala hartzeko aukera eman behar zaiela sexualitateari buruzko prestakuntzan, familia-plangintzan eta metodo antisorgailuen erabileran.

Bakea eta desmilitarizazioa:

MMMren ustez, patriarkatuak eta kapitalismoak gerra erabiltzen dute, euren nagusitasunari eusteko. Sistema patriarkal eta kapitalistak indarkeria onartu duenez, militarizazioa eta gerra dira jarrera horren adierazgarri.

Gerrak oso esperientzia mingarriak dira egoera hori bizi duten guztientzat, euren sexua edozein dela ere. Nolanahi ere, gerrak eragin berezia dauka emakumeen artean, gizonen artean daukana ez bezalakoa, hain zuzen ere. Emakumeek era berezian sufritzen dute, gatazka non edo zergatik gertatzen den kontuan hartu gabe. Euren artean, indarkeria sexuala da bereizgarriena. MMMk hau guztiau salatzen du: gerra-garaiko zigorgabetasuna, indarkeria gerrako arma moduan erabiltzea eta emakumeak gerrako harrapakintzat hartzea.

MMMk aldarrikatu egiten du emakumeek zeresan handia dutela bakearen kultura eratzeke orduan. Nahiz eta garrantzitsuak izan, ez dituzte onesten emakumeek

bakearen eraketan egindako ekarpenak eta ez diete inolako jaramonik egiten bake-prozesu formaletan. MMMk "bakearen" kontzeptu zabalaren alde egiten du, gerraren edo indarkeria zuzenaren desagerpenetik haratago joateko eta emakumeen eskubideak oso-osorik eta bete-betean onesteko.

"Bake eta militarizazioaren" arloan, zenbait aldarrikapen egiten ditu MMMk: armagintzaren amaiera, arma nuklearren amaiera, espazioko militarizazioaren etena, base edo hitzarmen militarren itxiera, estatuetako aurrekontuen desmilitarizazioa, kalte-ordainerako eskubidea edo gerra moduan erabilitako terrorismoaren amaiera. MMMren esanetan, gastu militarrek murriztu eta emakumeen ahotsa zabaldu behar da gatazkapean dauden eskualdeetan, larrialdietarako alerta-sarea sortu ahal izateko.

Eredu neoliberal eta patriarkalaren alternatiba:

MMM "kapitalismoaren nahiz inperialismoaren aurkako nazioarteko gizarte-mugimendu feminista da, tokian tokiko borroketan zein testuinguruan dago sustraituta eta maila-borrokarekin dago lotuta". Globalizazio neoliberalak txirotasuna dakarkie emakumeei, eta, horren ondorioz, euren eskubideak nahiz duintasuna galtzen dituzte. Mugimendu honek gaur egungo ordena hori gaingintu nahi du, bidezkoa ez delako, patriarkatuan, arrazakerian zein kapitalismoan oinarritzen delako eta indarkeria zein txirotasuna sortzen dituelako.

MMMren bi gai nagusiak txirotasunaren desagerpena eta emakumeen aurkako indarkeriaren desagerpena dira. Bi kasuetan, garapen-eredu neoliberalak kritikatu beharra dago. Bere proposamen guztietan, kritika zorrotza egiten du globalizazio neoliberalaren sistemari buruz, eta, aldi berean, maila-borrokaren funtsa berreskuratzen du, behin eta berriro gogoratzen duelako nolako lotura duen kapitalismoak patriarkatuarekin eta sistemako bertako patuan eragina duten gizarte-maila/arraza/etnia/sexua gurutzaketekin. Bere balioek eta ekintzek aldaketa politiko, ekonomiko eta soziala lortzea eta kapitalismoaren zein patriarkatuaren arteko egituraketa agerian jartzea dute helburu nagusi, "berdintasun, askatasun, elkartasun, bake eta justizian oinarritutako mundua" erdiesteko.

MMMren iritziz, txirotasuna, emakumeen aurkako indarkeria, ingurumenaren suntsipena eta militarizazioa sakon-sakon sustraituta daude sistema

neoliberallean. MMMren diskurtsoan, gaur egungo globalizazioa salatzen da bete-betean, bere ustez emakumeen eskubideen erabateko erabilerarekin bat ez datorrelako. Sistema zeharo aldatu beharra dago, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Itunak

Gaur egungo sistema kapitalista goitik behera aldatzeko, "mugimenduen mugimendu handia jarri behar da abian, ordena kapitalista, kolonialista, patriarkal eta arrazistaren oinarria diren indarren arteko lotura aldatzeko.

Ez dago bakarrik lan egiterik. MMMk beste talde feminista batzuekin eta mugimendu sozial progresistekin ezarri ditu itunak. MMM mugimendu feministaren osagaietakoa da, eta sistema neoliberalaren aurkako borroketan parte hartzen du, G8 eta antzeko erakundeen eta merkataritza askerako hitzarmenen aurka mobilizatzeko eta salatzeko. MMMk Munduko Gizarte Foroan (MGFn) parte hartu du 2000. urtean abian jarri zenetik, eta ordezkari iraunkorra du MGfko Nazioarteko Kontseiluan. Horrez gain, MMMk kanpo-zorraren ezeztapenaren aldeko, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eta gerraren aurkako itunen ere parte hartzen du.

MMMrentzako itun estrategikoa Vía Campesinarekin duen harremana da. Nekazarien mugimendu horrekin estrategia bateratuak partekatzen dituzte, 2007an lan bateraturako agenda zehatza ezarri zuten. "Vía Campesinak emakumeen aurkako indarkeria amaitzeko egindako munduko kanpainak" argi eta garbi adierazten du Ibilaldiaren eta Nekazarien Bideko emakumeen arteko ituna sendotu egin dela.

Egitatezko berdintasuna lortzeko, egiturazko aldaketak egin behar dira. Mundua aldatzeko, itunak ez ezik, hezkuntza ere bada funtsezkoa. MMMk herri-hezkuntzaren alde egiten du, emakumeek euren eraldaketen inguruan duten kontzientziarioa bultzatzeko asmoz.

Ana Ruizi egindako elkarrizketa. Euskal Herriko Emakume Martxarako Plataformako kidea

Nola eta zergatik sortu zen Munduko Emakumeen Ibilaldiko Euskal Herriko plataforma?

2000. urtean, Quebeceko emakumeen ibilaldiaren berri edukitzean, zenbait taldek zerbait egin nahi izan zuten Bilbon eta Euskadin. Orduan, sindikatu batzuen partaidetza zeukan plataforma eratu zen. Hasiera batean, ibilaldi txikiak egin ziren, lekukotasuna emateko asmoz. Bilbon, esaterako, emakume baztertuak zeuden auzoetan egin ziren: Rekalden eta Santutxun; auzo horietan, eraso sexualak, emakumeen aurkako indarkeria... gertatu zirelako.

2003. urtearen amaieran, talde autonomo feministok eta sindikatu etako emakume-taldeok sarean lan egiten hasi ginen, 2005ean ekintza ahaltua egiteko asmoz, bost urtean behin munduko ibilaldiak estrategiak eta ekintzak aldatu eta berri egiten dituelako. Orduan, ia-ia bi urte genituen gogor lan egiteko, MMMk Emakumeen Gizatasunerako Munduko Gutuna egin nahi zuelako. Izan ere, gure ustez, hori tokian-tokian zehaztu beharra zegoen, eta Euskal Herrian bizi diren emakumeen gutun zehatzagoa egin behar zen. Orduan, urtebete eta erdi eman genuen testua eztabaidatzen eta egiten eta zenbait herritako emakume-taldeen plataformak irekiak egiten, eta, azkenean, Euskal Herriko Emakumeen Gutuna atera ahal izan genuen.

2005era arte horixe egin genuen. Horrez gain, MMMko emakume galiziarrekin ere egin genuen erreleboa, eta gutuna zein estalkia ekarri zizkiguten Karrantzaraino. Horiek horrela, astebeteko ibilaldia egin genuen Euskal Herri osoan zehar: Bilbo, Donostia, Iparralde. Herri guztietako emakume asko mobilizatu ziren. Egia esan, nahikotxo inplikatu ziren, eta emakumeen arazoak jorratu ahal izan genituen.

Zer gairi ematen die lehentasuna Euskal Herriko Emakumeen Gutunak?

Lehenengo eta behin, hemen bizi garen emakumeon egoera, errealitatea aztertu dugu, eta egiaztatu egin dugu munduko beste leku batzuen aldean berdintasun formala daukagula paperean, baina praktikan berdintasun hori betetzen ez dela. Esate baterako, emakume gazte, etorkin eta baserriarren artean ez dago indarkeriaren arazoa, ezegonkortasun ekonomikoa, soldaten arteko aldeak... konpontzerik.

Gutunean, emakumeen eskubideen zerrenda egin nahi genuen, nahiz eta oso garrantzitsua izan, herritartasunaren gaia ahaztu zitzaigula konturatu ginelako. Izan ere, bigarren mailan lekuratzen gaitu beti, emakumeok bigarren mailako herritarrak bagina bezala. Gure iritziz, herritartasuna zer zen azaldu behar zen kontzeptu feminista kontuan hartuta, hau da, pertsona guztiak, gizonak eta emakumeak kontuan hartuta. Gainera, berdintasuna agertu behar zen berariaz, ez zen inolaz ere nabarmendu behar eta ez zen estatus-desberdintasun hori egon behar. Zentzu horretan, guretzat oso kezagarria zen emakume etorkinen egoera, paperen kontua eta estatuen arteko pertsona-mobilizazioa, gaur egun Euskal Herrian emakume etorkin asko daudelako eta oso txarto bizi direlako, laneratzeko eta laguntzak jasotzeko zailtasunak edukitzean. Horren ondorioz, euren ezegonkortasun ekonomikoa gero eta handiagoa da.

2005. urtean, ekintzapean zeuden emakume etorkinen taldeen inplikazioa lortu zenuten?

Bai, barne-zailtasunen ondorioz ezin izan zuten plataformaren antolakuntzan parte hartu, ez zutelako bertaraterik, baina bete-betean parte hartu zuten mobilizazio guztietan. Bilbon, zenbait ardatz landu genituen: indarkeria, ezegonkortasun ekonomikoa, gatazken konponbidea...; eta eurek gai guztietan parte hartu zuten.

Gaur egun, nola dago plataforma, zein da zuon funtzionamendua eta zer proposamen dituzue etorkizunari begira?

Egingo diren ekintzak prestatzen ari gara, bost urtean behin berri egiten direlako. Hori dela-eta, 2010ean, munduko ekintza bat egingo da martxoaren 8tik 18ra; eta beste munduko ekintza bat, 2010eko urriaren 17an. Berriro elkartu gara, eta apur bat sakondu nahi ditugu 2010erako egin ditzakegun ekintzak, hemengo emakumeek egunero dituzten arazoak eta bizi behar duten egoera salatzeko, oraindik ere konpondu gabe daudelako. Funtsean, duela zenbait hilabete hasi gara. Zenbait GKEren eta emakume etorkinen talde baten laguntza jaso dugu, eta, horrez gain, beste talde batzuk ere inplikatu dira. Hona hemen landu nahi ditugun ardatzak: emakumeen aurkako indarkeria, arlo guztietako eta era guztietako indarkeria fisikoa, psikologikoa, kulturala eta soziala kontuan hartuta; ezegonkortasun ekonomikoa, gero eta larriagoa delako krisiaren ondorioz; eta sexu zein ugalketa arloko eskubideak, askatasun sexuala, abortua eta gobernua arlo horretan ezarri nahi duen lege berria kontuan hartuta.

Ahalik eta emakume gehien mobilizatu nahi ditugu tokian-tokian, herrietan... Oinarrizko agiria egingo dugu, eta, horren bitartez, emakumeek zer egoeratan dauden azalduko digute, 2005etik bost urte igaro direnean. Horrela, euren aldarrikapenak zeintzuk diren jakin ahal izango dugu. Aldarrikapen orokorrak eduki nahi genituzke, gaur egun emakumeen egoera zein den jakiteko.

Oso-oso lotura estua duten patriarkatuak eta eredu neoliberalak emakumeen eskubideen urraketan nolako eragina duten azalduko diguzu?

Bata bestearen gainean daude oinarrituta. Patriarkatua gizabanakoen, hau da, emakume zein gizonen arteko harreman desberdinetan oinarritzen da. Horren ondorioz, banaketa sexuala gertatzen da lanean, eta emakumeok ugalketako, esparru pribatuko eta etxeko lanaz arduratu behar izan gara, eta menpekoak zaintzeko eta atenditzeko doako lana garatu dugu. Gizonek, ordea, lan publikoa egin dute, gehienbat. Hori dela-eta, beste pertsona batzuk atzean egon behar izan dira doako zainketez arduratzen, eredu ekonomikoak ezin diolako lan horri aurre egin eta ez duelako holako lanik ordaintzerik. Izan ere, halakorik eginez gero, sistema hautsi egingo litzateke. Bestetik, patriarkatua emakumeen otzantasunean oinarritzen denez, sistema ekonomikoari edo globalizazio ekonomiko neoliberalari ondo datorkio biztanle batzuek lan hori dohainik egitea, horrela beste biztanle batzuek ekoizpen-lanari bakarrik ekin behar diotelako. Dena dela, finantza-krisiaren eta benetako ekonomiaren zein finantza-ekonomiaren arteko banaketaren ondorioz, sistemak kale egin duela ikusi dugu, ez dagoelako fikziozko eskaria sortzerik, ez dagoelako biztanleen artean etengabeko premiak sortzerik, sistema horri eutsi ahal izateko. Hain zuzen ere, are haustura handiagoak sortzen ditu gizon eta emakumeen artean, haustura ekonomikoak, haustura sozialak... Interes-gatazkan dago oinarrituta, bai eta sistema ekonomikoak emakumeak menderatzeko erabiltzen duen patriarkatua ere.

Plataformatik, hausnarketaren bat egin duzue giza eskubideen formulazioen eta garapenaren inguruan egindako kritika feministari buruz?

Gutuna egitean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala kritikatzan ari gara, nolabait esateko. Gure ustez, adierazpena egin zutenean, gizona hartu zuten gizabanakotzat, eta euren interesak nahiz premiak baino ez zituzten hartu kontuan. Beraz, ahaztu egin zitzairen emakumeek oso garrantzitsuak diren eskubide bereziak ditugula. Emakumeentzako gutuna egitea proposatu

genuenean, mundua hobetzea genuen helburu eta emakume zein gizonen artean eragina izatea, sistema ezin delako desberdintasunean oinarritu eta desberdintasun horren kaltetuak izan direlako beti berberak izan. Ez dago egoera horri eusterik, eta berriro zehaztu beharra dago. Gure ustez, giza eskubideen arloan nabarmendu egin behar da batzuetan tradizioa eta beste kultura batzuen errespetua nahasten direla. Hala ere, kultura objektiboa ez dela eta berez ona ez dela esan dezakegu. Esate baterako, giza eskubideen arloan, askatasun sexuala eta ugalketa zein sexu arloko eskubideak kontuan hartu ez direlakoan nago.

Euskal Herriko plataforma erakunde eta talde feministek osatzen dute. Euskal Herriko mugimendu feministarentzat zer da nazioarteko ibilaldian parte hartzea, aberasgarria ote da mugimendu moduan?

Oso positiboa da, baina lan neketsua izan da plataformarena. Plataformak, talde feministek eta talde mistoan dauden emakumeek ahalegin handia egin dute, hitz egiteko, eztabaidatzeko eta gutxieneko adostasunak lortzeko, plataforma hautsi ez dadin, sarean sustatu nahi genuen lana hautsi ez dadin. 2005erako ibilaldiarekin hasi ginenean, plataformaren barruan ordezkariak izango ginela erabaki genuenez, munduko ibilaldiaren barruan ordezkariak izango gara eta gure arazoak edo gaiak azaldu ahal izango ditugu. Hain zuzen ere, hemen ditugun arazoak islatu nahi genituen nazioartean.

Oso neketsua izan da, batzuetan taldeen arteko harremanak zailak direlako. Uneren batean, talde batzuek irteteko erabakia hartu zuten, talde mistoekin lan egin nahi zutelako, baina gure batzarrarentzat emakume guztien ikuspegiak hartu behar ziren kontuan. Beraz, plataformaren ikuspegia feminista izateko, ahalik eta emakume gehien egon behar ziren. Positiboa izan zen, aurrera jarraitzen dugulako.

Nolako itunak ezarri dituzue Euskal Herriko beste mugimendu sozial batzuekin?

Askotan, koordinakunde feministak egotean, ekintza orokorrak egin ahal izan ditugu, eta zenbait gai landu ahal izan ditugu batera: abortua, indarkeria edo ezegonkortasun ekonomikoa. Hori dela-eta, errazago lan egin ahal izan dugu.

Gero, beste talde sozial batzuekin parte hartu dugu tokian-tokian globalizazioaren aurka garatutako ekintzetan, emakumeen eskubideen inguruko aldarrikapenak agerian jartzeko. Generoaren gaia ere landu beharra

dago, eta protagonistagoak izatea lortu behar dugu. Era berean, Europako gizarte-foetoan ere parte hartu dugu, eta batera lan egiten saiatu gara. Esate baterako, Europako Konstituzioa sustatzeko ahalegina egin zenean, Europako koordinakunde feministan dauden federazio guztien arteko mobilizazioa egin genuen, eta biztanleei, emakumei nahiz gizonei, azaldu genien zertan zetzan Europako Konstituzioa, une horretan nola zegoen eratuta kontuan hartuta: langileen eta talde guztien eskubide sozialak murrizten ziren. Jendeari eskatu genion hausnartzeko eta Europa merkatuetara irekiko zela eta pertsonen premiak alde batera utziko zirela kontuan hartzeko.

Zure ustez, nolako gaitasuna du emakumeen eskubideen gaiak Euskal Herrian benetako mobilizazioa izateko?

Zaila da, hemen zaila da. Patriarkatua eta sistema ekonomikoa oso sotilak direnez, unibertsitatean edo institutuetan ikasi eta laneratu ez diren emakume gazteek berdintasuna egon badagoela uste dute, baina gero, lanean hasten direnean, halakorik gertatzen ez dela konturatzen dira. Jendea nekez inplikatu da, hasiera batean guztiok uste dugulako guztiok eskubideak ditugula eta guztiok atek irekita ditugula. Arazoren bat eduki arte, ordea, ez dituzu oztopo horiek gainditu behar. Alde horretatik, emakume etorkinak hartu behar ditugu kontuan, paperik ez edukitzean kanpoan geratzen direlako. Emakume horiek argiago dute eskubideak aldarrikatu behar direla, baina euren egoera ere txarragoa denez, egunez eguneko konpondu behar dute eta zaila da mobilizatzea. Dena dela, nire ustez, motibazio-falta handia da gizartean, eta zaila da arlo guztietan. Gure mobilizazioetan, gauzak behin eta berriro adieraztea, azaltzea, begiak irekitzea dugu helburu nagusi, komunikabideek ustezko berdintasun formal horren inguruan mediatizatzen gaituztelako.

Esate baterako, institutueta neskak-mutilen artean, senargaiek emaztegaiei nork deitzen dien, nork deitzen ez dien kontrolatzen diete, baina ez dira konturatzen, ohikotzat hartzen dute. Orduan, halako batean, adiskideren bat edo inguruko norbait erasotzen dutenean, apur bat ohartzen dira. Dena dela, hortxe ere zerbait mobilizatzen ari da emakume gazteen artean, kalera irteteko eta euren ahotsaz hitz egiteko gogo dute-eta.

Plataforma moduan, nolako aurreikuspenak dituzue etorkizunari begira, zeintzuk dira zuon erronka nagusiak?

2010erako prestatuko ditugun ekintzak emakume guztiengana iritsi behar dira, eta erantzun positiboren bat sorrarazi behar dugu, gauzak apurka-apurka aldatu daitezzen, bidezkoa dena eskatzen dugulako. Pertsona guztiek aukera-berdintasuna, kulturarako aukera, osasuna, lana... eskuratzeko abagunea izan dezaten, beste era bateko mundua eratu nahi badugu, eskubideen alde borrokatu behar gara, ez dagoelako beste era batera lortzerik. Plataformarekin jarraitu nahi dugu, eta hurrengo urtebete eta erdian sentsibilizazio-lana garatu nahi dugu inguruan ditugun emakume-talde guztien artean. Hain zuzen ere, ibilaldiaren filosofia zein den eta une honetan emakumeentzat lehentasunezko arazoak zeintzuk diren azalduko diegu, eurek beste zailtasun batzuk ikusten dituzten esango digute eta ekintzarekin bat egiten duten ikusiko dugu. Horiek horrela, 2010eko munduko ekintzan, kalera irtengo gara eta emakume guztiok oihukatuko dugu mundu hau aldatzea benetan nahi dugula eta mundua hobetzeko gaitasuna dugula, gainera.

Vía Campesina

Zer da Vía Campesina?

Vía Campesina Asiako, Afrikako, Europako eta Amerikako kontinenteko 56 herrialdeetako nekazari, ekoizle txiki, landa-inguruneko emakume, indigena, lurrik gabeko jende, landa-inguruneko gazte eta nekazaritzako langileen nazioarteko mugimendua da. Mugimendua munduko zabaleko landa-erkidegoen interesak defendatzeko borrokatzen da, eta, batez ere, landa-garapenerako eredu alternatiboa eta merkataritza bidezkoagoa sortu nahi ditu. Orain del 15 urte eratu zen, nekazaritzaren liberalizazioari erantzuteko eta Munduko Merkataritza Erakundeak (MME), Nazioarteko Diru Fondoak (NDF) eta Munduko Bankuak (MB) abian jarritako politika neoliberaleri aurka egiteko.

Nekazarien Bideko nekazariak instituzio horiei leporatzen diete herrialde txirotuetoako gobernuak behartu dituztela garapen-eredu neoliberal onartzen eta nekazari handien zein enpresa multinazionalen mesederako baino ez dela izan. Toki-merkatuak liberalizatzeko politikak nekazarien egoera larriagotu du herrialde txirotuetoan, eta, askotan, euren laborantza-lurrak zein ganadua utzi behar izan dituzte, hiri handietara lan bila joateko. Vía Campesinak egiaztatu egiten du instituzio horien politika neoliberalak porrot egin dutela, ez dutelako euren agindu nagusietakoa bete: munduko gosea eta txirotasuna gutxitzea. Nolanahi ere, nekazarien giza eskubideen urraketa ugariren erantzuleak dira; esate baterako, biopirateriaren aurkako babes-falta eta baliabide genetikoen nahiz biodibertsitatearen hondamendia.

Vía Campesinak jakinarazi egin nahi du politika neoliberal horiek nekazarien giza eskubideak urratzen dituztela funtsean eta errotik desagerrarazi behar direla. Vía Campesinarentzat, elikaduraren subiranotasuna da lan-elementu nagusia, garapen-eredu iraunkorra eta gizatiartuagoa delako.

Mugimendua lau urtean behin batzartzen da nazioarteko ekitaldian (1993an, Monsen; 1996an, Txaxcalan; 2000n, Bangaloren; eta 2004, Saon). Bosgarren eta azken bilera Mozambikeko Maputon egin zen iazko urrian. Urtero, nekazarien giza eskubideen urraketari buruzko txosten onetsia argitaratzen du.

Giza eskubidea, Vía Campesinaren lan-ardatza

Vía Campesinaren lehentasunezko lan-arloetako bat lanerako, bizi-erakundeak nekazarien egoera berezia jartzen du agerian, globalizazio neoliberalak ondorio larriak eragin dituela euren artean. Egunero, nekazariak nahitaz utzi behar dituzte euren lurak, eta batera duinak ez diren baldintzetan bizi behar dira hiri handietako auzo txiroetan.

Beste batzuetan, nekazariak euren lurri eutsi ahal izan diete, baina hazien gaineko kontrola galdu dute. Batez ere NDFk herrialde txirotuetoan sustatutako nekazaritza "moderno" biodibertsitatea suntsitzen ari da, ongariak eta genetikoki aldatuta dauden organismoak erabiltzeagatik. Onuradunak, gainera, enpresa transnazionalak dira beti; esate baterako, AEBetako Monsanto. Enpresa horrek hazien gaineko patenteak lortzen ditu, eta genetikoki aldatzen ditu, behin baino erein ez daitezten. Horrela, nekazariak urtero erosi behar dituzte haziak. Vía Campesinak salatu egin du tradizioari begira doakoa izan den baliabide kulturala merkaturatzen ari direla eta, horren ondorioz, nekazariak menpetasun ekonomikoa dutela enpresa multinazionalekin. Horrez gain, haziak oso garestiak direnez, egiaztatu egiten du gero eta nekazari hegiak euren buruaz beste egiten dutela munduan eta kasuak ugari-ugariak direla Indian bertan.

Vía Campesinak kritikatu egiten du NDFk, MMEk eta Munduko Bankuak politika neoliberalak ezarri zituztela herrialde txirotuetoan eta herrialde aberastuen arteko botere-harremanei eusteko eta ez egoera horri aurre egiteko. Politika horien ondorioz, garapen-bideko herrialdeetako laneskua eta baliabide naturalak esplotatu zituzten, eta nekazariak "erdi esklabotzapean" utzi zituzten. Herrialde txirotuetoan eta aberastuen arteko botere-harremanei eusteko tresna ahaltsua da "dunpina". Europar Batasuneko herrialdeetako edo Estatu Batuetako gobernuak euren nekazaritza-sektoreari eman ahal dizkiote dirulaguntzak, eta, ondoren, produktu horiek ekoizpen-kostua baino prezio merkeagoan saltzen dituzte merkatu globalean. "Dunpinak" herrialde txirotuetoako toki-merkatuak

hondatzen ditu, ez dutelako nekazariei dirulaguntzak emateko besteko indarrak. Vía Campesinak bete-betean lan egiten du jardun horiek salatzeke, nekazariak bizitza duinerako eta lanerako dituzten eskubideak urratzen dituztelako.

Nekazariak munduko elikagai-ekoizle nagusiak direla diotenez, planetaren inguruko erantzukizun berezia dute. Hori dela-eta, Vía Campesinak eskubide bateratuak edo hirugarren belaunaldiko eskubideak ere defendatzen ditu; esate baterako, garapen iraunkorrerako eskubidea, ingurumena babesteko eskubidea edo aniztasun biologikorako eskubidea. Hain zuzen ere, epe laburreko logika neoliberalak geldiarazi nahi du errotik eta garapen-eredu iraunkorra ezarri nahi du.

Vía Campesinaren erronketakoa genero-berdintasuna da, jakin badakielako ez dagoela mundu hobea eratzerik munduko biztanleen erdiak baino gehiago baztertuz gero. Beraz, argi eta garbi dago ez dagoela giza eskubideez hitz egiterik, lehendabizi genero-berdintasuna lortu ezean. Kulturari begira belaunaldiz belaunaldi gizon eta emakumeen artean igorritako botere-harremanen desberdintasunaren eraginez, globalizazio neoliberalak ezarri eta eutsi egin diote, eta munduko emakume nekazarien jasandako bereizkeriaren zein tratu txarren arrazoi nagusia da, gainera. Emakume nekazari horiek bereizkeria bikoitza jasaten dute logika patriarkalaren arabera sistema kapitalista neoliberalpean. Emakume nekazariarentzat, lurraren aldeko eta neoliberalismoaren aurkako borroka lotura estua dauka emakume moduan euren eskubideen alde garatutako borrokaekin. Patriarkatua eta neoliberalismoa etsai berarentzako bi izen dira.

Borroka hori, gainera, beste erakunde feminista batzuek ere babesten dute; esate baterako, Emakumeen Mundu Martxa. Bi erakundeen arlo estrategikoetakoa mundu zabaleko emakume nekazariak jasandako genero-indarkeria sistematikoa salatzea da. Euren eskaeraren arabera, sexu, kultura edo erlijioagatikoa genero-indarkeria sistematikoa euren giza eskubideen urraketatzat hartu eta epaitu egin behar da. Kultura, sexua edo erlijioa ez dira aitzakiatzat hartu behar, emakumeen giza eskubideak ukatzeko.

Elikaduraren subiranotasuna, eredu neoliberalaren alternatiba

Mugimenduaren historian, une gogoangarria izan zen 1996ko Elikaduraren Munduko Goi Bileran. Bertan, hain zuzen ere, herrialde parte-hartzaileek konpromisoa hartu zuten, munduan elikatu gabe dauden pertsonen kopurua erdira jaisteko 2015. urteari begira. Horrez gain, Ekintza Plana aurkeztu zen, pertsona guztiek elikagai osasungarri eta elikagarrietarako eskubidea zutela berresteko eta mundu guztiarentzako elikadura-segurtasuna lortzeko. Vía Campesinarentzat itxaropen-unea izan zen benetan.

Testuinguru politiko horretan, Vía Campesinak elikaduraren subiranotasunaren kontzeptua aurkeztu zion jendeari, garapenerako eredu neoliberalaren alternatiba moduan. Elikaduraren subiranotasunaren arabera, herriek, herrialdeek edo estatu-batasunek ekologiarri begira iraunkorrak diren politikak zehazteko eskubidea dute elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumoaren arloan, euren kulturaren arabera egokia den elikadura elikagarri bezain segururako eta ingurumen osasungarriarako eskubidea bermatzeko, hirugarrenen herrialdeen "dunpinik" gabe eta lurra, ura zein haziak eskuratzeko erabateko aukera edukita. Horrez gain, kontsumitzaileen eskubidea ere errespetatzen du, zer kontsumitu nahi duten, nola ekoizten den eta nork ekoizten duen erabakitzeke orduan.

Elikaduraren subiranotasunak herrien elikaduraren segurtasuna du erronka nagusi, eta munduko gosea desagertzea nahi du. Erronka hori lortzeko, ezin da onartu genetikoki aldatutako haziak erabiltzea eta nekazaritzako produktuen duntza egitea. Era berean, horren ondorioz, zailagoa da oinarritzko elikagaiak esportatzea eta nekazaritzako prezioen egonkortasuna bermatzen da nazioartean, ekoizpena kontrolatzeko nazioarteko hitzarmenen bitartez. Kontzeptuan, giltzarria da ura, lurra, haziak eta antzeko ekoizpen-baliabideak ekoizleek esku egotea beti eta inoiz ez pribatizatzea.

Etorkizunerako erronkak

Etorkizunari begira, Vía Campesinak bete-betean lan egiten du, euren erakundearen genero-berdintasuna egia bihurtu dadin. Lehenengo eta behin, Nekazarien Bideko batzorde eta hitzaldietako delegatuen %50 emakumeak izango dira. Gainera, genero-parekotasuna ere lortu nahi du jardueren barruan, eta genero-gaiak sartzen jarraitu nahi du Nekazarien Bideko gai nagusien artean.

Bestetik, etorkizunari begira, Maputon egindako azken nazioarteko bileran hitzartu bezala, nekazarien mugimendua ahalik eta gehien handitzea da helburuetakoa. Hain zuzen ere, munduko beste erakunde batzuekin handitu behar dira itunak, Vía Campesinaren ikuskera eta proposamenak dituztenez. Nekazarien giza eskubideen aldako borroka goragoko maila politikoetara iritsi eta nazioarteko hitzarmenetan islatu behar da.

Hori dela-eta, Vía Campesinak Nekazarien Eskubideen Konbentzioa egin du, eta noiz berretsiko zain dago. Konbentzio hori oso-oso garrantzitsua da, iraganean egiaztatu egin delako Nazio Batuen Erakundean (NBE) lehendik dauden nazioarteko tresnek ez dutela giza eskubideen eta, batez ere, nekazarien eskubideen urraketa prebenitzen. Konbentzioak nazioarteko legeriako hutsunea bete nahi du, nekazarien eskubideak babesteko eta eusteko. Konbentzioak oso kon-tuan hartzen du munduko nekazarien egoera berezia dela eta nekazari moduan dituzten eskubideak babestu behar direla.

Besteak beste, honako hauexek dira konbentzioan adierazitako erreklamazio giltzarriak: nekazaritzako ekoizpenerako prezioa eta merkatua zehazteko eskubidea, hazien zein nekazaritzaren gaineko eskubideak eta nekazaritzako balioak babesteko eskubidea.

Indonesiako Nekazarien Sindikatuko (SCIko) Mohammed Ikhvani egindako elkarrizketa.

Zeintzuk dira Indonesiako nekazariak giza eskubideen arloan jasaten dituzten urraketa larrienak?

Larriena gure eskubide zibil eta politikoen urraketa da. Azken 20 urteotan, Indonesiako nekazaritza-gatazkak areagotu egin direnez, 1.700 gatazka baino gehiago daude gaur egun. Askotan, nekazariak auziperatu dituzte nekazariak izateagatik eta euren lurrak lantzeagatik, besterik ez. Indonesiako eremu batzuetan, gure interesak gatazka zuzenean daude estatuaren esku dauden enpresa nazional eta multinazionalen interesekin. Sumatrako iparraldean, Nataniko herrian, esate baterako, toki-agintariek emakume nekazariak atxilotu dituzte euren lurrak lantzeagatik. Lur horiek gune gatazkatuetan daude, baina emakumeek belaunaldien joan-etorrian euren familien esku egon diren lurrak lantzeko eskubidea dutela aldarrikatzen zuten. Beste aldean, ordea, Bacrie Sumatra Plantation izeneko enpresa dago, eta lurra euren dela dio.

Nola justifikatzen du enpresak lurrerako eskubidea?

Askotan, espekulatuzaileek bazekiten hainbat nekazarik euren lurretarako paper ofizialik ez zutela, lurra arbasoengandik heredatu zutelako paper ofizialik behar baino lehen. Hala ere, Nekazaritzari buruzko Oinarritzako Legea eraldatu denetik, gobernuak ziurtagiri ofizialak eskatzen dizkie nekazariari, lurrak eurenak direla egiaztatzeko, eta guk ez dugu halakorik egiterik. Orain, enpresak datoz eta bitartekariak diren espekulatuzaileei erosten diete gure lurra. Espekulatuzaileek gobernuan harremanak dituztenez, lurra euren dela baieztatu dezakete. Hori dela-eta, enpresa handientzat oso erraza da nekazarien lurren ziurtagiri ofizialak lortzea. Argi eta garbi dago Indonesiako gobernu nazionalako egitura ustekabeko enpresen eta multinazionalen merkataritza-interesen alde jokatzeko dutela.

Nolako ondorioak ditu desjabetzeko politika horrek nekazarien artean?

Lehenengo eta behin, nekazariak ez dute ezer ekoizteko aukerarik. Lehen, ordea, bananondoak eta soja-babak landatzen zituzten, baina orain ez dute ezer egiterik, Nekazaritzari buruzko Oinarritzako Legea urratzeagatik daudelako atxilotuta. Zorionez, enpresek erreklamatu ez duten lurra dago oraindik. Bertan, auzolandegia jarri dugu, gure kideak elkartzeko eta euren lurren erreklamaziorako estrategiak garatzeko.

Zure ustez, nolakoa da nekazarien gaur egungo egoera?

Nire iritziz, gaur egun oso gogorra da nekazaria izatea, ekoizpenetik kontsumora arteko prozesuan, behin eta berriro urratzen dituztelako gure eskubideak. Ez dugu ekoizpenerako edo lurrerako eskubiderik, Sumatrako iparraldean gertatzen den bezala. Dena dela, nekazaria luraren jabea denean ere (0,3 hektarea), ez du bidezko prezioa irabazterik. Irabazitakoaren bidez ez du ekoizpen-kostuak berreskuratzerik eta mozkin txikia irabazterik. Nire ustez, Indonesiako gaur egungo nekazaritza-politikaren esparrua ez da nekazarien aldekoa: aurrekontua gero eta txikiagoa da, dirulaguntzak ere bai, eta merkatu globalera irekitzen ari gara geure merkatu nazionalak. Egoera orokorra ez da nekazarien aldekoa. Izan ere, gaur egun, oso arriskutsua da Indonesian nekazaria izatea.